

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Alde batetik, hornitzaile bat beharko dugu lehengaiak eta elikagaiak ekarriko dizkigunak. Etxeko janari osasuntsua saltzen duten jatetxea izanda, kalitatezko janari freskoa saltzen duen hornitzaile bat bilatu beharko dugu bertakoa izango dena ahal den einean, eta noski, produktu naturalak saltzen dituen, eraldaketa kimikorik gabe.



Gainera, garbiketa enpresa bat kontratatuko dugu, lokalaren garbiketa egin dezaten. Oso garrantzitsua da garbiketa, janariarekin lan egiten dugulako eta higiena oso garrantzitsua da produktuak ez kutxatzeko. Guk kanpoko zerbitzu bat hartuko genuke, jaiegunetan atsedean hartzeko, baina

astean zehar bakoitzak erabilitakoa garbituko genuke. Bazkideon lana sukaldatzea, kutxan aritzea, janaria banatzea eta bezeroen zain egotea izango da.